

1.FITXA

ERABERRITZE PASTORAL ETA MISIOLARIA: ESPIRITUALTASUNA “Harengan gure Itxaropena”. 2025eko jubileu-urtea dela eta Pastoral Gutuna

I. TOPAKETAREN AURRETIK PRESTATZEKO

1. GAIA ARGITZEKO ETA BIDERATZEKO

Gotzain jaunaren pastoral gutuneko honako puntuak irakurriko ditugu, elizbarrutian lantzen ari garen eraberritze pastoral eta misiolaria argitzen dutenak.

- III. Atala: Bihotz-berritze pastoral eta misiolaria (65-69 zk.)
- 2. Eraberritze prozesuak. 2.1. Fede-esperientzia landu (espiritualtasuna) (70-77 zk.)
- IV. Atala: Posible diren ametsak. 1. Gure espíritu-bizitza zaindu (99 zk.)

2. AMETSA GORPUZTU

Aurrez aipatutako testuak irakurri ondoren, gure errealitatea hausnartzeko tarte bat hartuko dugu. Amets hau nola gorpuztu dezakegun, eta gorpuzten jarrai dezakegun galdetuko diogu geure buruari.

Ondoko galderari erantzuna emango diogu, norberak, bere kristau elkartearen errealitatea oinarri hartuta:

1. Zein dira Eraberritze pastoral eta misiolariaren ezaugarriak egindako irakurketaren arabera? (66-69 zenbakiak)
2. Begira diezaiegun gure kristau elkarteei: nola bizi ditugu Eraberritze pastoral eta misiolari honen ezaugarriak gure komunitateetan?
3. Pastoral gutunak “Jainkoaren adiskide sendoak” izatera bultzatzen gaitu garai latzetan. Zer esperientzia eta ekimen ditugu gure kristau-elkarteetan gure fedea modu pertsonalean zein komunitarioan landu eta zaindu ahal izateko?

4. Gotzain jaunak gure fede bizitza, gure espiritualtasuna indartzera gonbidatzen gaitu eta horretarako amets bat planteatzen du, hainbat ekimenekin. Horietatik zein eskain genitzake gure zonaldean?

II. HASIERAKO TALDEAREN BILERAREN NONDIK NORAKOAK

1. TESTUINGURUA

Topaketaren nondik norakoak koordinatzen dituen pertsonak aztertu beharreko gaia kokatzen du, bileraren aurretik egin beharreko lana aipatuz eta topaketa horretan eman beharreko pausoak azalduz. Hasierako taldekideek topaketa prestatzen eman duten denboraren arabera, irakurketen edukiaren aurkezpen txiki bat egin daiteke bileraren hasieran.

2. OTOITZA

Erromatarrei 5, 3-9

3. ENTZUTEA

Pertsona bakoitzak hitza hartzen du, “2. Ametsa gorpuztu” ataleko galderen inguruan hausnartutakoa eta otoiztutakoa partekatzeko eta besteen ekarpena arretaz entzuten du. Erronda galderaz galdera egin daiteke, kide bakoitzaren parte-hartzea moderatuz, eta galdera bakoitzari eta erantzun bakoitzari denbora mugatua emanez (kide bakoitzarentzat hiru miunutu inguru).

4. ELKARRIZKETA

Parte-hartzaile bakoitzari entzun ondoren, elkarrizketa hasten da, intuizio partekatuak ezagutzeko, konbergentziak eta desadostasunak identifikatzeko, zalantzak eta kezkek argitzeko... eta erantzuteko planteatutako gaien inguruan adostasuna lortzeko urratsak ematen dira. Elkarrizketa honetan parte-hartzaile bakoitzak hitz egiteko duen denbora mugatzea ere komeni da.

5. ADOSTUTAKOA BILDU

Topaketan esandakoa jaso behar da, adostutakoa azpimarratuz.